ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2024ko otsailaren 21a, asteazkena • 22 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

Hutsen zuzenketa 2024ko otsailaren 9ko (ostirala) ALHAOn (17 zenbakia) argitaratutako 2024-336 iragarkian, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 30eko 1/2024 Foru Dekretuari buruzkoan

Iragarkia osorik baliogabetzen da. Akats baten ondorioz Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen foru dekretuaren proiektua argitaratu zen, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren diputatuaren abuztuaren 28ko 32/2023 Foru Aginduaren bidez onetsia.

Jarraian, Foru Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 30eko 1/2024 Foru Dekretua argitaratzen da, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duena.

1/2024 Foru Dekretua, urtarrilaren 30ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onestea

Foru administrazioan, administrazioaren antolaketa ezartzeko eskumena Arabako Foru Aldundiko Foru Gobernu Kontseiluak dauka, hala xedatzen baitute Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak, Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzko legeak, toki jaurbidearen oinarriak arautzen dituen legeak eta batzar nagusiek onetsitako erakunde araudiak.

Ahalmen hori erabiliz, Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketari eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 23ko 10/2023 Foru Araua onetsi zen. Haren babesean, diputatu nagusiak Arabako Foru Aldundiaren egituraren barneko sailak eta haiei dagozkien lan arloak ezarri zituen 2023-2027 legegintzaldirako, diputatu nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuaren bidez.

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailari honako eskumen eta eginkizun hauek esleitu zaizkio:

— Obra eta Zerbitzuen Foru Plana eta Inbertsioen Foru Plana.

— Toki erakundeen finantzaketa.

— Toki erakundeentzako laguntza eta aholkularitza.

— Lurralde plangintza eta informazioa.

— Hirigintza kudeaketa eta diziplina.

— Ordenamendu juridikoan adierazitako gainerakoak.

Gai horiei buruzko administrazio jarduera Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko Foru Arauaren 22., 24., 43. eta 44. artikuluetan eta horiekin bat datozenetan oro har sailentzat ezarritako ahalmen eta eskuduntzen esparruan garatzen da.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren ardurapeko eta eskumeneko eremu materiala finkatuta, foru dekretu honek, horri buruz egindako txostenak aintzat hartuta, haren egitura ezarri du, administrazio eta kudeaketa jarduera behar bezala garatzeko beharrezkotzat jotzen dena, eta zerbitzuak eta dagozkien eginkizunak zehaztu ditu.

Foru dekretu hau bat dator Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura onesten duen otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 3. artikuluan ezarritako arauen kalitatearen eta erregulazio onaren printzipioekin.

Premia, eraginkortasun eta proportzionaltasun printzipiora egokitzea aurreko paragrafoetan adierazitakotik ondorioztatzen da, eta antolamendu arau bat denez, ez ditu herritarren eskubideak murrizten.

Segurtasun juridikoaren printzipioak, hain zuzen ere, foru sailen egitura 152/2023 Foru Dekretuaren arabera sail horiek beren gain hartzen dituzten arlo funtzionaletara egokitzea eskatzen du, foru organo administratiboen eskumena argia izan dadin herritarrentzat.

Gardentasun printzipioari dagokionez, onetsitako araua argi eta garbi zehaztuta dago arestian azaldutakoaren arabera, eta Irekia - Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Irekiaren atariaren bidez zabalduko da. Horrek bermatzen du sarbidea erraza, unibertsala eta eguneratua izango dela.

Ekimen horrek ez die kargarik ezartzen herritarrei, eta, beraz, ez dago arriskuan efizientzia printzipioa.

Sinpletasunaren eta ulergarritasunaren printzipioa aplikatuz, arau hau, ahal den neurrian hizkera argiz eta erraz ulertzeko moduan idatzita, hiru kapitulutan egituratzen da: xedapen komunak, Lurralde Orekaren Zuzendaritzaren eginkizunak eta Lurralde Antolamenduaren Zuzendaritzaren eginkizunak. Era berean, xedapen komunen barruan eta artikulu bereizietan, sailaren jardun arloei, egiturari, diputatu nagusiaren, zuzendaritzen eta administrazio unitateen eginkizun orokorrei eta kontratazio mahaiaren osaerari buruzko alderdiak arautzen dira.

Ez da egokia kontuak emateko printzipioa kontuan hartzea, ekimen hau, bere izaeragatik, xedapen orokorrak egiteko prozedura onesten duen otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuan ezarritako arau plangintzaren eskematik kanpo baitago.

Azkenik, berdintasunaren arloan, Foru Kontseiluaren maiatzaren 23ko 6/2023 Foru Dekretuan, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Arabako V. Foru Planean (2022-2026) xedatutakoa hartu da kontuan.

Horregatik, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaurko bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

I. KAPITULUA. XEDAPEN KOMUNAK

1. artikulua. Sailaren jarduera eremuak

Bat etorriz diputatu nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuarekin, Arabako Foru Aldundiko sailak zehaztu ziren 2023-2027 legegintzaldirako. Hala, Arabako Foru Aldundiari dagozkion honako gai eta eginkizun hauek esleitu zaizkio Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailari:

— Obra eta Zerbitzuen Foru Plana eta Inbertsioen Foru Plana.

— Toki erakundeen finantzaketa.

— Toki erakundeentzako laguntza eta aholkularitza.

— Lurralde plangintza eta informazioa.

— Hirigintza kudeaketa eta diziplina.

— Ordenamendu juridikoan adierazitako gainerakoak.

2. artikulua. Sailaren egitura

Aurreko artikuluan adierazitako jardun arloei dagozkien eginkizunak eta eskumenak gauzatzeko, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saila, sail horretako foru diputatu titularraren goi zuzendaritzaren mendean, honako unitate organiko hauetan egituratuta dago, erantsitako organigramaren arabera:

Diputatuaren menpean:

a) Lurralde Orekaren Zuzendaritza.

b) Lurralde Antolamenduaren Zuzendaritza.

Lurralde Orekaren Zuzendaritzaren mendean:

a) Toki Finantzaketaren eta Administrazio Kudeaketaren Zerbitzua.

b) Toki Administrazioaren eta Erronka Demografikoaren Zerbitzua.

c) Aholkularitza Juridikoko Zerbitzua.

d) Toki Azpiegitura eta Ekipamenduen Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzua.

Zerbitzu horren mendekoa da Toki Azpiegitura eta Ekipamenduen Atala.

Lurralde Antolamenduaren Zuzendaritzaren mendean:

a) Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzua.

Zerbitzu horren mendekoak dira Hirigintzako Plangintza, Kudeaketa eta Diziplina Atala eta Lurralde Informazioaren Atala.

3. artikulua. Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailari atxikitako entitate, erakunde eta organoak

Hona hemen Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailari atxikita dauden erakunde, sozietate eta entitateak, bakoitza erakundeen erregistroan daukan identifikazio zenbakiarekin:

ERAKUNDEAREN ZENBAKIA	IZENA
104.1	Naturgolf SA
384	Lurralde Oreka Sustatzeko eta Arabako Lurralde Historikoko Despopulatzea Saihesteko Erakunde Arteko Mahaia
384.1	Lurralde Oreka Sustatzeko eta Arabako Lurralde Historikoko Despopulatzea Saihesteko Sail arteko Batzordea
80	Arabako Lurralde Historikoko Hirigintza Batzordea
414.1	GeoArabaren Sailarteko Batzordea

Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 26.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak ordezkariak izendatzerakoan emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua lortzeko konpromisoa hartzen du.

4. artikulua. Diputatuaren eginkizunak

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatu titularrari dagokio sailaren zuzendaritza eta ordezkaritza izatea, eta Arabako Foru Aldundiaren gobernu, antolaketa eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 23ko 10/2023 Foru Arauaren 24. artikuluak foru diputatuei esleitutako eskumen orokorrak gauzatzea, bai eta, sailari dagozkion eginkizun eta jardun arloen eremuan, araudiak esleitzen dizkion gainerako eskumen guztiak ere. Eskumen horiek foru dekretu honen 1. artikuluan daude jasota.

Gainera, honako eginkizun hauek dagozkio:

a) Sailaren plan estrategikoa diseinatzea.

b) Arabako Foru Aldundia ordezkatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordean.

c) GeoArabaren Sailarteko Batzordean buru jardutea.

d) Arabako Foru Aldundian izapidetzen diren Arabako Lurralde Historikoko lurzoru urbanizaezinean dauden zuzkidura, ekipamendu eta jardueren interes publikoa adieraztea.

e) Hirigintza plangintza onestea, ez onestea eta/edo ezestea, aplikatzekoa den hirigintza legeriaren arabera.

f) Arabako Foru Aldundiaren kartografia ekoizpenari lotutako arau teknikoak onestea.

g) Toki erakundeek beren ondasunak besterentzeko edo kargatzeko edozein eratako baimena ematea edo ukatzea, eta, hala badagokio, toki erakundeek beren ondasunak besterentzeko edozein moduren berri izatea, aldez aurreko baimenik behar ez denean.

h) Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailari atxikitako sozietate publikoak eta gainerako erakundeak zuzentzea, dekretu honetan eta arlo horretan aplikatu beharreko legerian ezarritakoaren arabera.

i) Aipaturiko arloan, Trebiñuko enklabearekin eta Gaztela eta Leongo nahiz Eusko Jaurlaritzako erakundeekin zerikusia duten ekimen guztiak kudeatzea.

5. artikulua. Zuzendariaren eginkizun orokorrak

Zuzendariari dagokio Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketari eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 23ko 10/2023 Foru Arauaren 46. artikuluan adierazitako eginkizunak betetzea. Bereziki:

a) Unitate organiko guztien eta bere ardurapeko beste erakunde batzuen jardueren plangintza egin, zuzendu, koordinatu eta gainbegiratzea, eta horien barne funtzionamenduaren araubidea ezartzea.

b) Xedapen proiektuak egitea eta proposatzea, ezarritako jardun politikaren arabera.

c) Saileko foru diputatu titularrari laguntza teknikoa ematea hark eskatutako gaietan.

d) Zuzendaritzaren aurrekontua prestatu, proposatu eta kontrolatzea, bidezko diren aurrekontu aldaketak izapidetzea eta gastu programak ebaluatzea.

e) Zuzendaritzako bulegoen barne araubidearen ardura izatea eta zaintzea; eta haren ondasun higigarriak eta higiezinak administratzea eta zaintzea.

f) Zuzendaritzaren barruan, gardentasuna, herritarren parte hartzea eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea sustatzea.

g) Saileko diputatu titularrak eskuordetzan emandako eginkizunak betetzea.

h) Erregelamendu organikoetan eta Arabako Foru Aldundiaren erabakietan agintzen zaizkion gainerako eginkizunak betetzea.

6. artikulua. Administrazio unitateen buruen eginkizun orokorrak

Dekretu honetan arloaren arabera zehaztu diren eginkizunez gain, administrazio unitateetako buruek eginkizun orokor hauek dituzte:

a) Unitateko buruaren ardurapeko administrazio unitateari dagozkion gaiak zuzendu eta kudeatzea, eta bere eskumeneko gaiei buruzko ebazpen proposamenak prestatzea.

b) Buruak nagusi duen zuzendariari laguntza teknikoa ematea, edo, hala badagokio, foru diputatu titularrari, dagokion unitatearekin zerikusia duten gaietan.

c) Unitatearen urteko aurrekontuaren proposamena eta jardueren memoria prestatzea.

d) Giza baliabideen zuzkidurari buruzko proposamenak egitea eta esleitutako langileen zuzeneko buruzagitza betetzea, besteak beste, honako eginkizun hauek betez:

— Ordutegia betetzen dela kontrolatzea.

— Baimenak eta lizentziak kontrolatzea.

— Egitekoak eta lanak banatzea, horiek betetzen direla gainbegiratzea eta lanen gaineko erantzukizuna izatea.

e) Unitateko bulegoen barne araubideari arreta eskaintzea eta zaintzea, eta bertako ondasun higigarriak eta higiezinak administratzea eta zaintzea.

f) Finkatutako helburuak lortzeaz arduratzea.

g) Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunari, herritarren parte hartzeari eta gobernu onari buruzko otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauari lotutako eginkizunak bere gain hartzen dituen zuzendaritzako administrazio unitatearekin ahalik eta lankidetza handienez aritzea.

h) Zerbitzuburuek azterlanak eta txostenak prestatu, aholkularitza eman eta proposamenak egin, programak kudeatu eta jarduerak egingo dituzte beren eskumeneko gaietan, erregelamendu organikoetan eta foru dekretu honetan ezarritakoei jarraikiz.

i) Atalburuek azterlanak eta txostenak prestatu, kudeaketa lana egin, aholkularitza eman eta proposamenak egingo dituzte dena delako unitate organikoaren eskumeneko gaietan, eta, hala badagokio, espedienteak bideratu eta izapidetuko dituzte, bai eta zerbitzuburu egokiak eskatzen dien beste zeregin oro egin ere.

j) Arautegi organikoetan eta foru aldundiaren erabakietan agintzen zaizkien gainerako eginkizunak.

7. artikulua. Kontratazio mahaia

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailean, kontratazio mahai iraunkorra eratuko da, sail horrek bere eskumenen esparruan prozedura ireki edo murriztuaren bidez egiten dituen kontratu guztiak kudeatzeko.

Kontratazio mahaian kide hauek ariko dira:

Mahaiburua: kontratazioa proposatzen duen zerbitzuko zuzendaria edo hark izendatzen duena.

Idazkaria: Toki Finantzaketaren eta Administrazio Kudeaketaren Zerbitzuaren buruak edo hark izendatzen duenak jardungo du idazkari.

Bokalak: kontratazioa proposatu duen zerbitzuaren eta/edo atalaren ordezkari diren bi funtzionario.

Beste bi bokal, kontratazio organoaren aholkularitza juridikoa eta esku hartzea esleituta dituzten administrazio unitateek izendatutakoak.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

II. KAPITULUA. LURRALDE OREKAREN ZUZENDARITZAREN EGINKIZUNAK

8. artikulua. Lurralde Orekaren Zuzendaritza

Lurralde Orekaren Zuzendaritzari dagokio Arabako Foru Aldundiaren antolaketari, funtzionamenduari eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 23ko 10/2023 Foru Arauaren 46. artikuluak eta horrekin bat datozenek zuzendariei esleitutako eskumen orokorrak gauzatzea, bai eta araudiak sailari dagozkion eginkizunen eta jardun arloen eremuan esleitzen dizkionak ere.

Gainera, Lurralde Orekaren Zuzendaritzari berariazko eskumen hauek dagozkio:

a) Gainerako sailekin eta administrazio publikoekin lankidetzan, lurralde orekaren arloko helburu orokorrak, estrategiak, planak eta lehentasunezko jarduerak lantzea, proposatzea eta bultzatzea, Arabako Foru Aldundiaren eskumenen esparruan.

b) Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsaren izapideak egitea, kudeatzea, idaztea eta banatzeko proposamena egitea, unean-unean ezarritako araudiarekin bat etorriz, bai eta kontzejuei egin beharreko ekarpenena eta Arabako toki erakundeek tributu itunduetan parte hartzeko beste modu batzuena ere, eta horiek kudeatzea eta tributu itundugabeetako udal partaidetzak ere kudeatzea.

c) Aholkularitza juridikoa, teknikoa eta ekonomikoa ematea toki erakundeei, bai eta lege aholkularitza ere, lurralde antolamenduaren, hirigintzaren eta lurralde informazioaren arloetan izan ezik.

d) Beste administrazio eta/edo erakunde publiko edo pribatu batzuekiko lankidetza hitzarmenak bultzatzea eta garatzea.

e) Lurraldeko toki erakundeen finantza tutoretza egitea.

f) Toki erakundeekin batera, langileak prestatzeko programak sustatzea eta horietan parte hartzea.

g) Administrazio batzarren hauteskunde araubideari buruzko proposamenak egitea, bai eta horien jarraipena egitea ere.

h) Deialdiak eta izendapenak proposatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin eta Toki Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiarekin lankidetzan, estaturako gaikuntza duten funtzionarioen esparruan.

i) Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen arloko laguntza zerbitzuak ematea udalei.

j) Aisialdirako tokiko parkeak sortu, kontserbatu eta mantentzeko sustapena, kontrola eta koordinazioa.

k) Inbertsio planak.

l) Obra eta Zerbitzuen Foru Plana.

m) Toki erakundeetan, teknologia berrien erabilera bultzatzea, eta toki erakundeei laguntza ematea horiek ezartzeko eta mantentzeko.

n) Zuzendaritzaren berezko gaietan, gardentasuna, herritarren parte hartzea eta informazioa eskuratzeko bideak bultzatzea.

o) Arabako Foru Aldundiak lurraldeko landa garapeneko elkarteekin batera egiten dituen ekintzak koordinatzea.

p) Gainerako sailekin eta administrazio publikoekin lankidetzan, erronka demografikoaren arloko helburu orokorrak, estrategiak, planak eta lehentasunezko jarduerak lantzea, proposatzea eta bultzatzea, Arabako Foru Aldundiaren eskumenen esparruan.

q) Bere eskumeneko gaietan, jarraibideak ematea.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

9. artikulua. Toki Finantzaketaren eta Administrazio Kudeaketaren Zerbitzua

Toki Finantzaketaren eta Administrazio Kudeaketaren Zerbitzuari honako eginkizun hauek dagozkio:

a) Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsaren izapideak egitea, kudeatzea, idaztea eta banatzeko proposamena egitea, unean-unean ezarritako araudiarekin bat etorriz, bai eta Arabako toki erakundeek tributu itunduetan parte hartzeko beste modu batzuena ere, horiek kudeatzea eta itundu gabeko tributuetan udalen parte hartzea kudeatzea.

b) Saileko zuzendaritzetako zerbitzuen espedienteen administrazio izapideak egitea, eta, oro har, zuzendaritzei laguntzea aurrekontuen eta kontabilitatearen kudeaketatik eratorritako administrazio prozesuetan.

c) Lurralde Orekaren Zuzendaritzako dokumentazioaren sarrera eta irteera erregistroak ezartzea eta dokumentuak banatzea, dokumentuei erantsitako dokumentazioa berrikusi eta kontrolatuta, zerbitzuetara igortzeko, espedienteak artxibatu eta zaintzea eta sailak aldizkari ofizialetara bidaltzen dituen xedapen orokorren argitalpena izapidetzea.

d) Lurralde Orekaren Zuzendaritzaren berezko gaiei, laguntzen lerroei, maileguen baimenei eta foru lerroei buruzko aholkularitza, lankidetza eta informazioa ematea toki erakundeetako ordezkariei.

e) Toki erakundeen finantzaketaz denaz bezainbatean, Lurralde Orekaren Zuzendaritzaren finantzaketako foru lerroak eta bestelako finantzaketa tresnak emateko espedienteak izapidetzea.

f) Bidegabeko ordainketak itzultzeko prozedurak kudeatzea.

g) Herri Kontuen Euskal Epaitegiarekiko eta gainerako organo fiskalizatzaileekiko harremana koordinatzea.

h) Zuzendaritzaren urteko aurrekontuak prestatzeko lanak koordinatzea eta aurrekontua zein aurrekontuko aldaketak behar bezala gauzatzeko behar diren espedienteak administrazio bidez izapidetzea.

i) Zuzendaritzaren programa informatikoak sortzen eta mantentzen laguntzea.

j) Aldiro-aldiro, kontularitza, ekonomia, aurrekontu eta espedienteen izapidetze alderdiei eta eragiten dieten araudi berriei buruzko informazioa ematea zerbitzuei.

k) Sailari atxikitako sozietateen ekonomia eta kontabilitate egoera aztertzea, betiere sailari atxikitako zuzendaritzekin zerikusia badute.

l) Saileko zuzendaritzek sustatutako kontratazio espedienteak izapidetzea.

m) Toki erakundeei laguntza ematea Obra eta Zerbitzuen Foru Planean eta Lurralde Orekaren Zuzendaritzak sustatutako beste lankidetza tresna batzuetan babestutako obrak kontratatzeko espedienteak izapidetzeko.

n) Administrazio errekurtsoak izapidetzea zuzendaritzaren esparruan.

o) Zuzendaritzaren eskumeneko gaietan, politika publikoen, gardentasunaren eta herritarren parte hartzearen inguruko ebaluazioa kudeatzea, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunari, herritarren parte hartzeari eta gobernu onari buruzko otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak xedatutako baldintzetan, Zuzendaritzaren gainerako zerbitzuen laguntzarekin.

p) Zuzendaritzaren esparruan, kontsultak, kexak eta iradokizunak kudeatzeko prozedura koordinatzea.

q) Zuzendaritzako gainerako zerbitzuekin lankidetzan aritzea, zerbitzuaren eskumen eremuaren barruan zerikusia duten gaietan, eta, hierarkian gorago daudenek eskatuta, beharrezko informazioa prestatzea, botere legegileak Arabako Foru Aldundiko edo saileko arduradunei egindako eskaerei erantzuteko, zerbitzuaren eskumeneko gaiei lotuta.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

10. artikulua. Toki Administrazioaren eta Erronka Demografikoaren Zerbitzua

Toki Administrazioaren eta Erronka Demografikoaren Zerbitzuari honako eginkizun hauek dagozkio:

a) Zuzeneko dirulaguntzak eta zerbitzuari atxikitako deialdiak izapidetzea eta bideratzea.

b) Toki erakundeen aholkularitza ekonomikoari eta finantza tutoretzari lotutako gaiak planifikatzea eta kontrolatzea.

c) Toki erakundeen finantza tutoretzari buruzko araudi proposamenak prestatzea.

d) Aisialdirako tokiko parkeak sortu, kontserbatu eta mantentzeko sustapena, kontrola eta koordinazioa.

e) Kontzejuen aseguruekin lotutako espedienteen informazioa, izapidetzea eta kontrola.

f) Zerbitzuak beste administrazio eta elkarte batzuekin sinatutako lankidetza hitzarmenen kontrola eta jarraipena egitea.

g) Toki erakundeen finantza tutoretzari lotutako zereginak egitea, eta, zehazki, toki erakundeen aurrekontu egonkortasuna eta finantza jasangarritasuna ebaluatzea, plan ekonomikoak kontrolatzea eta kostuak kontrolatzea.

h) Kontabilitate eta aurrekontu araudiari buruzko proposamenak egitea, bai eta finantza eragiketei buruzkoak ere, hori guztia toki erakundeei doakienez.

i) Tokiko ordenantza fiskalak izapidetzeko laguntza ekonomikoa.

j) Laguntza teknikoa eta ekonomikoa ematea toki erakundeen aurrekontuak prestatzeko, bai eta aurrekontu likidazioak eta aldaketak eta kontu orokorrak egiteko, horiek jasotzeko eta kontrolatzeko ere.

k) Laguntza teknikoa eta ekonomikoa ematea Arabako kontzejuen kontuak prestatzeko, jasotzeko eta kontrolatzeko.

l) Zorpetze eragiketak hitzartzeko helburuz, txostenak egitea toki erakundeek baimena eskatzeko espedienteetan.

m) Toki ogasunen egoerari buruzko azterlanak egitea.

n) Tokiko administrazio prozedurak eta kudeaketa ekonomikoa arrazionalizatzeko aholkularitza ematea, aurrekontu ereduak, kredituak aldatzeko espedienteak, likidazioak eta toki erakundeen kontuak prestatuta.

o) Toki erakundeen administrazio elektronikoa.

p) Teknologia berrien erabilera sustatzea toki erakundeetan, eta toki erakundeei laguntza ematea horiek ezartzeko eta mantentzeko.

q) Erronka demografikoaren arloko helburu orokorrei, estrategiei, planei eta lehentasunezko jarduerei lotutako ekintzak kudeatzea.

r) Laguntza teknikoa, ekipamendu eta azpiegitura obrak egiteko eta proiektuak idazteko agiriak egiteko, eta kontratazio plataformara eramatea. Laguntza hori 1.000 biztanletik beherako kontzeju, kuadrilla eta udal guztiei emango zaie.

s) Zuzendaritzako gainerako zerbitzuekin lankidetzan aritzea, zerbitzuaren eskumen eremuaren barruan zerikusia duten gaietan, eta, hierarkian gorago daudenek eskatuta, beharrezko informazioa prestatzea, botere legegileak Arabako Foru Aldundiko edo saileko arduradunei egindako eskaerei erantzuteko, zerbitzuaren eskumeneko gaiei lotuta.

11. artikulua. Aholkularitza Juridikoko Zerbitzua

Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuari honako eginkizun hauek dagozkio:

a) Diputatuari, zuzendaritzari eta saileko gainerako zerbitzuei laguntza juridikoa ematea.

b) Sailak emandako ebazpenen aurka jarritako administrazio errekurtsoak ebaztea.

c) Toki erakundeei aholkularitza juridikoa eta lege laguntza ematea epaiketetan, zerbitzuaren eskumeneko gaietan.

d) Toki erakundeei aholkularitza juridikoa ematea kontratu publiko zein pribatuen arloan. Toki kontratuen gaineko txostenak egitea eta baldintzen agiriak eta obra, zerbitzu eta horniduren kontratuak idaztea.

e) Tokiko ondasunak besterentzeari eta trukatzeari buruzko txostenak egitea, kontrolatzea eta espedienteak gainbegiratzea.

f) Toki ondasunen inbentarioak onartzea eta zaintzea.

g) Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen plazak betetzeko lehiaketak deitzea, eta horien izendapenak eta kargu uzteak egitea.

h) Udalei laguntza zerbitzuak ematea estaturako gaikuntzaren arloan.

i) Euskal Autonomia Erkidegoan estaturako gaikuntzarako antolatzen diren deialdiak ebazteko epaimahaietan parte hartzea.

j) Toki erakundeei aholkuak ematea partzuergoei eta elkartzeko beste bide batzuei buruz.

k) Aholkularitza juridikoa ematea toki erakundeen ondasun erkidegoei eta partzuergoei.

l) Aholkuak ematea kontzejuetako biztanle erroldak egiteko.

m) Administrazio batzarren hauteskunde araubideari buruzko arauen proposamenak egitea eta gero horren jarraipena egitea administrazio aldetik.

n) Kudeaketa batzordeak kudeatzea eta izendatzea, hala badagokio.

o) Lurralde mugak aldatzeari, toki erakundeen izenari eta horien ikur bereizleak hartu edo aldatzeari buruzko espedienteen kontrol eta gainbegiratze txostenak egitea.

p) Zerbitzu ermandadeei buruzko ebazpen proposamenak prestatzea eta izapidetzea eta txostenak egitea.

q) Kuadrillen gaineko txostenak ematea eta, oro har, horien espedienteak izapidetzea.

r) Toki erakundeen foru erregistroa sortu, zaindu, mantendu eta eguneratzea.

s) Zuzendaritzaren berezko gaietan zigor prozeduretan laguntza ematea, bideratzea eta izapidetzea.

t) Tokiko ordenantza fiskalak izapidetzeko eta kontrolatzeko laguntza juridikoa ematea.

u) Arabako Erroldatze Kontseiluari laguntza eta aholkularitza ematea.

v) Zuzendaritzako gainerako zerbitzuekin lankidetzan aritzea, zerbitzuaren eskumen eremuaren barruan zerikusia duten gaietan, eta, hierarkian gorago daudenek eskatuta, beharrezko informazioa prestatzea, botere legegileak Arabako Foru Aldundiko edo saileko arduradunei egindako eskaerei erantzuteko, zerbitzuaren eskumeneko gaiei lotuta.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

12. artikulua. Toki Azpiegitura eta Ekipamenduen Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzua

1-Toki Azpiegitura eta Ekipamenduen Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzuari honako eginkizun hauek dagozkio:

a) Zerbitzuari agindutako jarduketen programak egin, onetsi eta gauzatzeko aurreikusitako plangintza azterlanak egitea, eta, bereziki, Obra eta Zerbitzuen Foru Planari, auzo harremanak sustatzeko ekimenei eta obra txikiak gauzatzeari dagozkienak, eta aurretik jakin ezin direlako Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeek finantzatu ezin dituzten ezustekoei eta larrialdiko obrei aurre egiteko dirulaguntzei dagozkienak, bai eta toki erakundeen beste inbertsio plan batzuk ere.

b) Zerbitzuak kudeatutako laguntza programak arautzen dituzten foru arauak aldatzeko proposamenak egitea. Halaber, foru arau berrien aurreproiektuak egitea, hala dagokionean.

c) Toki erakundeetan zerbitzuen egoerari eta beharrei buruzko azterlanak egitea, tokiko erakundeekiko lankidetzara bideratutako jarduketa programak inplementatzeko beharrezkoa den informazioa eskuratzeko.

d) Toki erakundeen ekipamenduen eta zerbitzuen gaineko diagnostikoa lantzea.

e) Zerbitzuak kudeatutako laguntza programen oinarri arautzaileak eta deialdiak egitea eta izapidetzea.

f) Toki erakundeei aholkuak ematea, bakoitzak bere eremuan dituen beharrei buruz, premia horiek zehazteko eta eskaerak egiteko laguntza programa zehatzen bidez, bai eta eskatu beharreko jarduketen plangintzari buruz ere, eta, oro har, zerbitzuari esleitutako eskumenei zuzenean eragiten dieten alderdi guztiei buruz.

g) Eskatu beharreko jardueren bideragarritasun ekonomikoari buruzko aholkularitza ematea toki erakundeei.

h) Zerbitzuak kudeatutako laguntza programen deialdien izapideak egitea, honako hauek aztertuta: eskaerarekin batera bidalitako dokumentazio teknikoa eta administratiboa, diruz lagun daitezkeen aurrekontuak lortzeko kalkuluak, eskaeren balorazioa, Arabako Foru Aldundiko beste sail batzuekin koordinatzea, eta organo instrukzio egilearen proposamena.

i) Laguntzak benetan jasotzeko baldintzak eta betekizunak ezartzeko arauzko xedapenak prestatzea eta izapidetzea, baita laguntza programak kudeatzeko araudi osagarria ere.

j) Zerbitzuak kudeatutako laguntza programen gauzatzea kudeatzea, eta, horretarako, honako hauek egitea: diruz lagundutako proiektuak aztertu, dokumentazio teknikoa eta administratiboa gainbegiratu, diruz lagundu daitezkeen aurrekontuak lortzeko kalkuluak egin, obren gauzatzearen jarraipena egin eta dagozkion ordainketa proposamenak egin.

k) Tokiko erakundeei laguntzea zerbitzuak kudeatutako laguntza programen bidez babestutako obrak egiten.

l) Diruz lagundutako jarduerei dagokienez, toki erakundeek egin beharreko inbertsioen bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren azterketa egitea, erakunde onuradunei jarduera horiek finantzatzeko dauden aukerei buruzko aholkularitza ematea, eta aurkeztutako finantza planei buruzko txostena egitea.

m) Zerbitzuaren eskumenen arabera esleitutako ekonomia eta finantza tresnak kudeatzea (kreditu lerroak, zerbitzuak kudeatzeko planak, inbertsioaren gaineko finantza azterlanak...), toki erakundeekin lankidetzan aritzeko.

n) Zerbitzuak kudeatutako laguntza programen betetze mailari buruzko jarraipen ekonomikoa egitea.

o) Beste organismo, erakunde, administrazio publiko, pertsona juridiko edo fisiko batzuekin lankidetza hitzarmenak eta bestelako kontratu figurak prestatu, bideratu eta kudeatzea, zerbitzuari agindutako eskumenetatik sortutako jardueretan garapena eta lankidetza izateko (kudeaketa esleipenak, lankidetza hitzarmenak…).

p) Zerbitzuari dagozkion lankidetza programa edo partidetako laguntzak egituratu, planifikatu, definitu, arauak egin eta jarraipena egitea, itun politikoen edo aurrekontu itunen emaitza badira, kontrolatuta jardueren burutzapena eta behar bezala finantzatu direla (izaera nominatiboko aurrekontu partidak, inbertsioko programa bereziak edo apartekoak, finantzaketa sistema edo formula osagarriak ezartzea…).

q) Zerbitzuaren eskumeneko gaiak direla-eta saileko edo Arabako Foru Aldundiko arduradunei botere legegileak egindako eskaerei erantzuteko eman beharreko informazioa prestatzea, nagusi hierarkikoek aginduta.

r) Zerbitzuak kudeatzen dituen laguntza programen ebazpenen ondorioz aurkeztutako errekurtsoak edo errekerimenduak bideratzeko izaera tekniko eta ekonomikoko dokumentazioari buruzko txostenak egitea edo horiei buruzko informazioa ematea, bai zerbitzuaren ekimenez, bai arlo juridikoak eskatuta.

s) Arabako toki erakundeen inbertsio, obra eta zerbitzuak finantzatzeko foru lerroa bera aztertzea eta haren azterketa ekonomiko-finantzarioa egitea, bai eta finantza figura horiek baimentzeko edo, hala badagokio, ukatzeko proposamenak ere.

t) Finantzaketako foru lerroen jarraipena koordinatzea, aldian-aldian kapital xedapenak eta emandako aurrerakinen amortizazioak kontrolatuz, eta ez-betetzeen edo desbideratzeen kasuan, neurri zuzentzaileak diseinatu eta proposatuz.

u) Arabako Herriguneetako Azpiegituren eta Ekipamenduaren Inbentarioa zuzendu, mantendu eta eguneratzea, eta hura ezartzeko, funtzionarazteko eta kudeatzeko jarraibideak ezartzea. Aldundiaren GISeko geruza instrumentalak sortzea eta mantentzea, sailaren eskumeneko gaietan.

v) Arabako Kalkulugunearekin lankidetzan aritzea, zerbitzuaren aplikazio informatikoak eguneratu eta hobetzeko.

w) Auditoretzaren eta kontrolaren arloan eskumena duten organoek (Kontu-hartzailetza, Herri Kontuen Euskal Epaitegia...) eskatutako informazioa prestatzea, Zerbitzuak kudeatutako espedienteei dagokienez.

2. Toki Azpiegitura eta Ekipamenduen Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzuaren mendean dago Toki Azpiegitura eta Ekipamenduen Atala, eta honako eginkizun hauek dagozkio:

a) Zerbitzuburuarekin lankidetzan aritzea, atal teknikoaren arduraduna den aldetik, zerbitzuak kudeatzen dituen laguntza programak arautzen dituzten foru arauen aurreproiektuak idazten edo aldaketa proposamenak egiten.

b) Zerbitzuburuarekin lankidetzan aritzea, atal teknikoaren arduraduna den aldetik, zerbitzuak kudeatzen dituen laguntza programetako deialdiak eta oinarri arautzaileak egiten.

c) Zerbitzuburuarekin lankidetzan aritzea, atal teknikoaren arduradun den aldetik, zerbitzuak kudeatzen dituen laguntza programen ebazpen proposamenak egiten, bai eta laguntzak benetan jasotzeko baldintzak eta eskakizunak ezartzeko arau xedapenak eta laguntza programak kudeatzeko araudi osagarria prestatzen ere.

d) Hierarkian gorago daudenei aholkuak eta laguntza ematea, zerbitzuak kudeatzen dituen laguntza programei dagokienez eta, bereziki, programa horien alderdi teknikoei dagokienez.

e) Laguntza programen eta inbertsio planen kudeaketa teknikora bideratutako metodologia berrien aplikazioari buruzko proposamenak egitea zerbitzuari.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

f) Zerbitzuan ezarritako jarraibideen ildotik, laguntza programen eduki teknikoak kudeatzea: indizeak eguneratzea, parametroak berrikustea, kalkulu moduluak sartzea, eta abar, laguntza programak arautzen dituen araudian ezarritakoaren arabera.

g) Zerbitzuak kudeatutako laguntza programen deialdien instrukzio prozesua ikuspegi teknikotik gainbegiratzea.

h) Zerbitzuak kudeatutako laguntza programen kudeaketan aplikatu beharreko irizpide teknikoak zehaztea, zerbitzuburuarekin lankidetzan.

i) Ikuspegi teknikotik, zerbitzuak kudeatutako laguntza programen gauzatzea gainbegiratzea, eta espedienteak kudeatzeko aplikatu beharreko irizpideak unitateko langileei helaraztea.

j) Bere unitateko langileen lana planifikatu, koordinatu eta gainbegiratzea.

k) Txosten teknikoak idaztea eta egitea, ofizioz edo zerbitzuak eskatuta.

l) Ad hoc tresnak inplementatzea, laguntzen kudeaketaren eraginkortasuna hobetzeko.

m) Sailean edo sailen artean azterlanak egitea, hala egiteko eskatuta zein zerbitzuarekin lankidetzan.

n) Arabako herriguneen azpiegitura eta ekipamenduen inbentarioa zuzendu, bultzatu eta kudeatzea, eta inbentarioa mantentzeko eta eguneratzeko lanak gainbegiratzea, erreferentzia tresna izan dadin zerbitzuak bere gain kudeatzeko dituen laguntza programak behar bezala ezartzeko.

o) Katalogoak, inbentarioak eta beste informazio produktu batzuk eguneratzeko ardura duen arloarekin koordinatzea, diruz lagundutako obrak gauzatzearen ondorioz izandako aldaketak edo inbentarioko edukiekin lotuta lortutako informazioa haietan txertatzeko.

p) Kanpoko teknikariek egindako obra proiektuak berrikustea eta idazten laguntzea, laguntza programen erregulazioak hala aurreikusten duen kasuetan, eta sailak aplikatutako baliabideen eraginkortasuna optimizatzera bideratzea haien jarduna, bai eta obren zuzendaritza teknikoa gainbegiratzea ere.

q) Agiri teknikoak eta gainerako agiri teknikoak egiten laguntzea, zerbitzuak kudeatutako programek diruz lagundutako obrekin lotutako kontratazio espedienteak izapidetzeko faseetan.

r) Obrak nola gauzatzen diren ikuskatzea, gainbegiratzea eta egiaztatzea, bere eskumen eremuan.

s) Atala atxikita dagoen zerbitzuarekin lankidetzan aritzea, baliabide materialak eta giza baliabideak are gehiago optimizatzeko.

t) Atala atxikita dagoen zerbitzuak edo zuzendaritzak agintzen dion beste edozein eginkizun.

III. KAPITULUA. LURRALDE ANTOLAMENDUAREN ZUZENDARITZAREN EGINKIZUNAK

13. artikulua. Lurralde Antolamenduaren Zuzendaritza

Lurralde Antolamenduaren Zuzendaritzari dagokio Arabako Foru Aldundiaren antolaketari, funtzionamenduari eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 23ko 10/2023 Foru Arauaren 46. artikuluak eta horrekin bat datozenek zuzendariei esleitutako eskumen orokorrak gauzatzea, bai eta araudiak sailari dagozkion eginkizunen eta jardun arloen eremuan esleitzen dizkionak ere.

Gainera, Lurralde Antolamenduaren Zuzendaritzari berariazko eskumen hauek dagozkio:

a) Gainerako sailekin eta administrazio publikoekin lankidetzan, lurralde antolamenduaren, hirigintzaren eta lurralde informazioaren arloko helburu orokorrak, estrategiak, planak eta lehentasunezko jarduerak lantzea, proposatzea eta bultzatzea, Arabako Foru Aldundiaren eskumenen esparruan.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

b) Arabako Foru Aldundiaren eremuan, lurralde antolamenduko planak zuzentzea, kudeatzea eta erakundeen artean eta sailen artean koordinatzea.

c) Arabako hirigintza batzordeko buru jardutea, hirigintzaren arloan, Arabako Foru Aldundiaren aholku eta koordinazio organo gisa.

d) Proposamenak eta txostenak aurkeztea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari, lurralde antolamenduaren eta hirigintzaren arloan, Arabako Foru Aldundiaren ordezkaritzan.

e) Arabako hirigintza plangintza egiteko laguntzak izapidetu, kudeatu eta idaztea eta ebazpen proposamena egitea, kasu bakoitzean ezarritako araudiaren arabera.

f) Aholkularitza, laguntza teknikoa eta juridikoa eta abokatu defentsa ematea toki erakundeei, lurralde antolamenduaren, hirigintzaren eta lurralde informazioaren arloan.

g) Beste administrazio eta/edo erakunde publiko edo pribatu batzuekiko lankidetza hitzarmenak bultzatzea eta garatzea.

h) GeoArabaren Sailarteko Batzordean, batzorde teknikoaren buru jardutea.

i) Arabako Foru Aldundiaren ekoizpen kartografikoko arau teknikoak egiteko, aldatzeko eta eguneratzeko proposamenak egitea.

j) Arabako lurralde informazioaren erregistroa zuzentzea eta jarduketak Geografia Institutu Nazionalarekin koordinatzea.

k) Arabako hirigintza plangintzaren administrazio erregistroa zuzentzea eta eguneratuta mantentzea.

l) Arabako hirigintza intereseko elkarteen erregistroa zuzentzea eta eguneratuta mantentzea.

m) Hirigintza ikuskapeneko espedienteak eta/edo zehapen espedienteak gainbegiratzea eta izapidetzea, aplikatzekoa den legeriaren arabera.

n) Toki erakundeen lurralde mugaketako eta mugak aitortzeko prozedurak bultzatzea eta izapidetzea, bai eta lurralde aldaketakoak ere.

o) Lurralde eta hirigintza informazioaren elkarreragingarritasuna sustatzea Europako erreferentzia esparruan, eta administrazio elektronikoa sustatzea.

p) Zuzendaritzaren berezko gaietan, gardentasuna, herritarren parte hartzea eta informazioa eskuratzeko bideak bultzatzea.

q) Bere eskumeneko gaietan, jarraibideak ematea.

Hori guztia dekretu honetan finkatua betez, zuzendaritzak dituen eskumenen arabera.

14. artikulua. Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzua

1. Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuari honako eginkizun hauek dagozkio:

a) Laguntza teknikoa ematea lurralde antolamenduarekin eta hirigintzarekin lotuta dauden eta Arabako Foru Aldundiaren eskumenekoak diren gaietan.

b) Arabako Foru Aldundiak sustatzen dituen lurralde planen prestaketa planifikatu eta koordinatzea, eta parte hartzea Arabako Lurralde Historikoan eragina izanda beste administrazio publiko batzuek sustatu dituzten lurralde plan partzialak eta lurralde plan sektorialak prestatzen.

c) Udalen hirigintza arloko ekintzak sustatzea, bai plangintza orokorra zein garapenerako plangintza egiten, aholkularitza eta laguntza teknikoa eta finantzarioaren bidez.

d) Hirigintza plangintzako kontratazio organoetako adituen batzordeetan parte hartzea.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

e) Zerbitzuak izapidetzen dituen espedienteak esleitu, aztertu eta kontrolatzeko eginkizunak betetzea.

f) Arabako Foru Aldundiari aurkeztutako espedienteen gaineko txostenak egitea, behin betiko onespena emateko, bai eta administrazio ebazpena ematea eskatzen ez dutenena ere.

g) Arabako hirigintza batzordeak egin behar dituen txostenen espedienteak gainbegiratzea.

h) Dirulaguntzak izapidetzea eta dirulaguntzak emateko proposamena egitea, lurralde historikoko udalek egiten dituzten plangintza orokorreko eta garapeneko tresnak gainbegiratzeko eta ingurumen azterketa estrategikoetarako.

i) Zuzendaritzarekin lankidetzan aritzea aurrekontuaren aurreproiektua egiterakoan, eta aurrekontuaren eta haren aldaketen jarraipen ekonomikoa eta kontularitzakoa izapidetzea eta egitea.

j) Plangintzaren tresnen edukiaren normalizazioa sustatzea eta prestatzea, Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen azken xedapenetatik bigarrenak dioenari jarraikiz.

k) Hirigintza espedienteei buruz saileko diputatuak edo diputatuen kontseiluak egin beharreko ebazpen proposamenak aurkeztea.

l) Ikuskatzea ondorengo hauen kudeaketa: hirigintza plangintzako administrazio erregistroena, hirigintza intereseko taldeen erregistroena eta zerbitzuan sortzen diren bestelako erregistroena. Horiez gainera, aipatutako erregistroak argitaratzen diren web orrien edukiak ere ikuskatu behar ditu.

m) Arabako Foru Aldundia ordezkatzea Arabako Nahitaezko Desjabetzeen Lurralde Epaimahaian, desjabetze espedienteei dagokienez, eta hirigintza balorazioak eta txosten teknikoak egitea Arabako Foru Aldundiarentzat, hitzarmen, truke, laguntza eta abarretarako beharrezkoak direnak, bai eta Arabako toki erakundeek eskatutakoak ere.

n) Herritarrei baliabide elektronikoen bidez eskaintzea zerbitzuak sortzen duen informazioa.

o) Zerbitzuak sortu eta herritarrentzat interesgarriak diren edukiak web orriaren bidez zabal daitezen bultzatzea.

p) GeoAraba koordinatzea eta kudeatzea, Arabako Lurralde Historikoko informazio geografikoko lurralde nodotzat erabilita, bai eta beste administrazio batzuei dagozkien datu espazialen azpiegituretako gainerako nodoekiko lotura ere, Arabako Foru Aldundiko sailek informazio geografikoaren arloan garatzen dituzten jarduerak sustatuz.

q) GeoAraba arautzen duten arauak bultzatzea eta garatzea, hura mantentzeko eta bilakaera izan dezan, bai eta informazio geografikoa sortu, kudeatu, koordinatu eta zabaltzeko ere.

r) GeoArabaren osagaien plangintza, jarraipena eta kontrola egitea, bai teknologiari dagokionez, bai eskaini beharreko informazioari eta zerbitzuei dagokienez.

s) GeoArabaren sailarteko batzordea sustatu eta bultzatzea, Arabako Foru Aldundiko arlo funtzionalen arteko koordinazioa bermatzeko, datu geografiko bateratuak eta kalitatezkoak sartu, erabili eta zabaltzeari dagokionez.

t) Zerbitzuko administrazio unitateen kudeaketa zuzentzea eta kontrolatzea.

u) Sailaren plan estrategikoa dela eta, ekintza planaren bidez ezartzen diren helburuak lortzen laguntzea.

v) Agintzen zaizkion ekintza planak idazten eta gauzatzen laguntzea.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

w) Politika publikoen ebaluazioa, gardentasuna eta herritarren parte hartzea kudeatzea zuzendaritzaren eskumeneko gaietan, bat etorriz Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak ezarritakoarekin.

x) Lurralde Antolamenduaren Zuzendaritzak bere jarduera eremuarekin lotuta agindutako gainerako eginkizunak; eta, hala badagokio, hierarkian gorago daudenek eskatuta, beharrezko informazioa prestatzea, botere legegileak Arabako Foru Aldundiko edo saileko arduradunei egindako eskaerei erantzuteko, zerbitzuaren eskumeneko gaiei lotuta.

2. Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuaren mendekoa da Hirigintzako Plangintza, Kudeaketa eta Diziplina Atala, eta honako eginkizun hauek gauzatzea dagokio:

a) Aholkularitza juridikoa ematea Arabako Foru Aldundiaren iritzia eskatzen duen eta, aldi berean, hirigintzaren eta lurralde antolamenduaren arloan eragina duen araudi orori buruz.

b) Laguntzea hirigintzaren arloko arauzko dekretuak eta garapen arauak egiten eta eguneratzen.

c) Aurkeztea lurzoru urbanizaezinean hornigaiak, ekipamendua eta jardunak ezartzearren aldundian izapidetzen diren interes publikoaren adierazpenen espedienteen ebazpen proposamena.

d) Aztertzea Arabako Foru Aldundiak behin betiko onespena eman diezaien aurkezten diren espedienteak ea egokitzen diren hirigintza legedira eta administrazio prozedurara, eta kasuan kasuko txosten juridikoa ematea.

e) Arabako Foru Aldundiak hirigintza arloko eginkizunak betetzean emandako ebazpenen aurka aurkezten diren errekurtsoen lege zuzendaritza egitea.

f) Lege zuzendaritza egitea lurraldeko udalek eskatzen duten hirigintza arloko administrazioarekiko auzi errekurtsoetan.

g) Lege aholkularitza ematea toki erakundeei zerbitzuarekin lotutako gaietan.

h) Herritarrek egiten dituzten lege eta hirigintza arloko kontsultei erantzutea.

i) Kudeatzea Hirigintza Plangintzaren Erregistroa eta Hirigintza Intereseko Taldeen Erregistroa, kasuan kasuko agirien inskripzioa egiteko aginduz eta agiri horiei buruz eskatzen diren egiaztagiriak emanez.

j) Aholkularitza juridikoa ematea hirigintzan eragina duten eskumenak dituzten aldundiaren gainerako sailei.

k) Era berean, behar bezala eguneratuta izan behar ditu erregistroak argitaratzen diren web orriaren edukiak.

l) Arabako hirigintza batzordeko idazkari lanak egitea.

m) Lege aholkularitza ematea Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen mugak, izena, hiriburua eta ezaugarriak arautzen dituen otsailaren 21eko 4/2011 Foru Arauak ezarritako prozeduren izapideak egitean.

n) Izapidetzea aldeek eskaturik ofizioz izapidetzen diren hirigintza ikuskapen arloko espedienteak, 2/2006 Legearen 218. artikuluan ezarritako eskumenen esparruan.

o) Agintzen zaizkion ekintza planak idazten eta gauzatzen laguntzea.

p) Zerbitzuaren buruak agintzen dituen beste eginkizun guztiak.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

3. Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuaren mendekoa da Lurralde Informazioaren Atala, eta honako eginkizun hauek gauzatzea dagokio:

a) Arabako datu espazialen azpiegitura (GeoAraba) mantendu, eguneratu eta garatzea, georreferentziatutako datuen eta informazio geografikoko zerbitzu elkarreragileen multzo gisa. GeoArabak datu geografikoak lokalizatzeko, bistaratzeko, deskargatzeko eta eraldatzeko zerbitzuak izango ditu. GeoArabak Arabako lurraldeari buruzko informazio geografikoa duten tokiko, autonomia erkidegoko, estatuko edo Europako gainerako datu espazialen azpiegiturekiko elkarreragingarritasuna ahalbidetuko du, Estatuko eta Europako gidalerroekin bat etorriz.

b) Arabako Lurralde Historikoko informazio geografikoa biltzeko, biltegiratzeko, normalizatzeko, tratatzeko, ekoizteko eta hedatzeko jardueren kontrola eta jarraipena egitea eta arautzea, lurralde informazioko sistemaren bidez. Sistema hori honako hauek osatzen dute:

— Foru erreferentziako ekipamendu geografikoa, hauek osatua: erreferentziazko sistema geodesikoa, koordenatuen sistema ofiziala, ekoizpen kartografikoa (oinarrizkoa, deribatua eta tematikoa) eta fotogrametrikoa, eta izendegi geografiko eta toponimikoa.

— Lurralde informazioko erregistroa, hauek osatua: kartografikoa, lurralde mugaketena eta izendegi geografiko eta toponimikoa.

— Arabako datu espazialen azpiegitura (GeoAraba).

— Lurraldeko datu espazialen azpiegitura eta antzeko beste sistema batzuekiko elkarreragingarritasuna, lokalizazio, bistaratze, eraldatze, datu espazial eta deskarga zerbitzuak emanez.

c) Organo eskudunari laguntza ematea erreferentzia nazionaleko ekipamendu geografikoa finkatu eta mantentzean, eta aldundiaren ordezkaritza egitea estatu zein autonomia mailan informazio geomatikoa harmonizatu, tratatu eta informatizatzeko helburuarekin sortzen diren batzorde teknikoetan.

d) Toki erakundeen lurralde mugaketako eta mugak aitortzeko prozeduretan laguntza eman eta horiek izapidetzea, eta laguntza teknikoa ematea jabetza mugaketaren aldaketa prozeduretan eta espedienteetan.

e) Hiriguneetako zerbitzu sareak atzeman, tratatu, eguneratu eta txertatzea lurraldeko informazio sisteman.

f) Artxibategi historiko kartografiko eta fotogrametrikoa mantentzea.

g) Kartografia ofiziala erabiltzeagatik ezarri beharreko araubide ekonomikoa proposatzea eta mantentzea lurralde eta hirigintza informazioaren saltokia.

h) Arabako hirigintza dokumentazioa tratatzeko eta erregularizatzeko araupetzea eta lotutako sistema informatikoa proposatu, ezarri eta kudeatzea.

i) Hirigintza plangintzako web orriaren edukiak eskuratu eta administratzea, hirigintza plangintzako erregistroarekin batera, informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez nahitaezko zabalkundea egin dadin.

j) Atalari dagozkion gaiei buruzko berariazko programak sustatu, garatu eta burutzea.

k) Agintzen zaizkion ekintza planak idazten eta gauzatzen laguntzea.

l) Zerbitzuburuak agintzen dituen beste eginkizun guztiak.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.

a) Kanpoan, gaixorik, aldi baterako ezinduta edo abstenituta edo errekusatuta dauden zuzendariak ordezteko araubidea Foru Aldundi honetako sailetako zuzendariak ordezkatzeko araubidea onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 18ko 36/2023 Foru Dekretuak edo haren ordezko araudiak ezarritakoa izango da.

b) Administrazio unitateen arduradunak aldi baterako ez badaude edo egon ezin badute, uztailaren 31ko 82/1997 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, buru duten zuzendaritzako arduradunak erabakitzen duen hark beteko ditu haien eginkizunak. Berariaz zehaztu ezean, eginkizun horiek unitatean administrazio kategoriarik altuena daukan langileak beteko ditu eta langile bat baino gehiago izanez gero, antzinatasunik handiena duenak.

Araudi propioa duten kasuak salbuetsiko dira.

Bigarrena.

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 45.6 artikuluaren arabera, xedapen honen bidez onetsitako Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren egitura aldatzeko, Arabako Foru Aldundiko lanpostu zerrenda ere aldatu beharko da aldi berean.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Haren egitura organikoa onesten duen foru dekretua indarrean jarri arte, Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailari aplikatuko zaio, hala badagokio, Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 3ko 38/2021 Foru Dekretua, Lurralde Orekaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duena.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Foru dekretu hau indarrean hasten denean, honako xedapen hauek indargabetuta geratuko dira:

a) Xedapen iragankorrean ezarritakoa alde batera utzi gabe, Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 3ko 38/2021 Foru Dekretua, Lurralde Orekaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duena.

b) Ingurumen eta Hirigintza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuaren 17., 18. eta 19. artikuluak. Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 3ko 48/2017 Foru Dekretuak aldatu zuen aurreko dekretua.

c) Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 24ko 44/2019 Foru Dekretuaren 10. artikulua.

d) Foru dekretu honek araututakoen aurkako gainerako xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau indarrean egongo da Foru Gobernu Kontseiluak onetsi eta hurrengo egunetik aurrera, ALHAOn argitaratzen den eguna gorabehera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urtarrilaren 30ean

Diputatu nagusia
RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua
ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA

Lurralde Antolamenduaren zuzendaria
JON ANDA LAZPITA

Lurralde Orekaren zuzendaria
LAURA PÉREZ BORINAGA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA - DIRECCION SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 211865
Fecha de firma: 2024.02.21 06:34:23 Z